



*Ezagutuz, maitatu.  
Maitatuz, babestu.  
Conocer para amar.  
Amar para conservar.*

# MATER KLUBA

Gure helburu eta baloreekin bat egiten baduzu, gure lana modu egonkorrean babesteko aukera duzu, beharpenak eta abantailak eskuratuz, MATER Klubaren partaide izanik.

## Zertan ari zara kolaboratzen?

MATER irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da, Pasaiako komunitatetik sortua orain dela 20 urte baino gehiago, gaur egun komunitate globalera zuzenduta ingurumenaren zaintza gizartean ezartzeko asmoz.

MATER ontzia da gure tresna nagusia eta zure kolaborazioarekin honen mantentzean eta gure ingurumen sentsibilizazio lanetan laguntzen diguzu. MATER euskadi mailan ingurumen zaintzaren erreferente bilakatu da, egurrez eraikitako azken euskal atunontzi handia, hondoratzetik salbatua, Ontzi Museo Ekoaktiboan bihurtuta.

Bertan gure itsas ingurunea ezagutu, maitatu eta babesteko esperientziak eskaintzen dira, pertsonak protagonistak bihurtuz, gizartea itsas ingurunearen babesaren inplikazioan elkartu eta eraldatzen lagunduz.

## Zein partaidetza mota daude MATER Kluban?

- **Banakakoa:** 18 urtetik gorako pertsona batena. 30€ urtean
- **Familiarra - 1 heldu:** heldu bat eta 18 urtetik beherako nahibeste familiarreko partaide. 45€ urtean
- **Familiarra - 2 heldu:** bi heldu eta 18 urtetik beherako nahibeste familiarreko partaide. 70€ urtean

*\*Ordainketa urterokoa da, eta kuota aldi batean edo bi alditan ordaindu daiteke: domiziliazio eran. Harpidetzak 365 eguneko iraupena izango du ordainketa egunetik.\**



*Ezagutuz, maitatu.  
Maitatuz babestu.  
Conocer para amar.  
Amar para conservar.*

## Zein onura zehatz dituzu MATER Klubeko kide izanik?

- Museoaren irekiera ordutegian ontzian doaineko bisita egiteko aukera mugagabea. Leihatilan MATER Kluba kide-txartela NANarekin batera erakustea besterik ez da beharrezkoa (plaza lehenagotik erreserbatu beharra dago, disponibilitatea dela eta).
- MATERen agenda jardueretan, taberna eta dendan %10eko deskontua.
- Jarduera, kurtso, ekitaldi eta albisteen informazio eguneratua newsletterrera izen-emate zuzena eginik.
- MATEReko komunitateko kide bezala, komunikazio eta zozketa eskusiboetan parte hartzea: itsasora irteerak, material didaktikoa, solasaldi eta mahai inguruak...
- Museoaren irekieran ordutegian bisitetan zurekin datozen bi pertsoneri 'tarifa murriztua' aplikatzeko aukera.

## Nola harpidetu zaitezke?

MATER komunitatearen parte izan nahi baduzu eta MATER Klubean harpidetu, hurrengo estekan topa dezakezun formularioan egin dezakezu harpidetzarako eskaera:

### [HARPIDETZA FORMULARIOA](#)

Edozein zalantza izanez gero edo harpidetza bertan behera utzi nahi izanez gero **Olaia Garcia**rekin jarri zaitezke harremanetan, museo arduraduna, [museoa@mater.eus](mailto:museoa@mater.eus)-era idatziz edo 619814225 zenbakira deituz.

Behin eskaera jasota, tramitea egin eta ordainketa domiziliazio eran egin ahal izateko dokumentua bidaliko dizugu, ofizialki MATER Klubaren parte izan zaitez. Identifikazio txartela bidali eta newsletterrera harpidetuko zaitugu. MATERen kolaboratzaile izango zara, mila esker